



ORFEON DONOSTIARRA  
DONOSTIAKO ORFEOIA

# 2018ko Memoria







ORFEON DONOSTIARRA

---

DONOSTIAKO ORFEOIA

## **Argazkiak**

Azala: : Kursaal / Juantxo Egaña

Donostiako Orfeoiaren Artxiboa

Musika Hamabostaldia: Iñigo Ibáñez

Music in the Alps Festival, Innsbruck: Sergei Kvitko

Munich: Hans Egels

Róterdam: Jan Hondjk



## Aurkibidea

➤ Zuzendaritza batzordea.....	7
➤ Ohorezko adiskideak eta adiskideak.....	8
➤ Presidentearen agurra.....	9
➤ 2018. urtea zenbakietan.....	10
➤ Memoria artistikoa .....	11
➤ Donostiako Orfeoiaren harrobiko abesbatzak.....	34
○ Donostiako Orfeoiko Abeslari Txikiak	
○ Donostiako Orfeoi Txikia	
○ Donostiako Orfeoi Gaztea	
○ Eskola koruak	
➤ Antxon Ayestarán Musika-Tailerra.....	39
➤ Biolin Ikasgela.....	41
➤ Biolontxelo Ikasgela.....	42





## Zuzendaritza batzordea

Presidentea	Echarri Campo, José María
Presidenteorde kantaria	Vivanco Larrea, Iñigo
Zuzendari artistikoa	Sainz Alfaro, José Antonio
Kide ez-kantariak	Arzak Arratibel, Juan María Bagüés Erriondo, Jon Comendador Azcárraga, Ramón De La Cuesta Arzamendi, José Luis Echenique Echeverría, José Antonio Gabilondo Pujol, Iñaki Sáinz de Vicuña Ancin, José María
Antzinako Orfeoi-kidea	Ormazabal Azurmendi, Txaro
Kide kantariak	Achúcarro Irulegui, Juan Aduriz Tellaetxe, Agustín Arrillaga Irigoyen, Berta Azpiroz Igelz, José Luis Epelde Maiztegui, Miren Argia Martín Estremo, M <sup>a</sup> Isabel Munduate Agud, Diana Urrutikoetxea Bayón, Ane Zaldua López, Jon
Idazkari Nagusia	Esturo Elejalde, Sonia



Donostiako Orfeoa irabazi-asmorik gabeko kultur entitate pribatua da, bere burua emanaldien, bazkideen ekarpenen eta ondorengo laguntzen bidez finantzatzen duena:



Eta Orfeoiaren Ohorezko adiskideak eta Adiskideak:

#### OHOREZKO ADISKIDEAK

ANTIGUO BERRI, S.A.  
 ARCELORMITTAL GIPUZKOA, S.L.  
 BM SUPERMERCADOS  
 EL CORTE INGLES  
 EL DIARIO VASCO  
 ESTRATEGIA EMPRESARIAL  
 EULEN, S.A.  
 EUREKA! Zientzia Museoa  
 FUNDACION BANCO SANTANDER  
 FUNDACION EDUARDO CHILLIDA Y PILAR BELZUNCE  
 FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA  
 FUNDACIÓN IBERDROLA  
 FUNDACION OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA  
 FUNDACIÓN ORONA FUNDAZIOA  
 FYM ITALCEMENTI GROUP- CEMENTOS REZOLA  
 GRUPO ULMA, S. COOP.  
 HOTEL SILKEN AMARA PLAZA SAN SEBASTIÁN  
 HOTEL DE LONDRES Y DE INGLATERRA  
 HOTEL M<sup>a</sup> CRISTINA  
 IBERIA LINEAS AEREAS DE ESPAÑA, S.A.  
 IMQ  
 IRIZAR, S.COOP  
 KUTXA  
 LA CAIXA  
 LABORAL KUTXA  
 MONDRAGON  
 PETRONOR

RADIO SAN SEBASTIAN (CADENA SER)  
 SDV CONSULTORES  
 TECNALIA RESEARCH & INNOVATION  
 UNICEF  
 UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO- EUSKAL HERRIKO  
 UNIBERTSITATEA

#### ADISKIDEAK

ADEGI  
 BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA  
 BANKOA, S.A.  
 BULTZ, S.A.  
 CASINO KURSAAL  
 CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.  
 COLEGIO MAYOR DE AYETE  
 ELKARGI, S.G.R.  
 ESCUELA SUPERIOR DE INGENIEROS DE LA  
 UNIVERSIDAD DE NAVARRA (TECNUN)  
 ETXE ONENAK, S.A.  
 ETXEPLAS  
 FABRICA NACIONAL DE MONEDA Y TIMBRE  
 HEREDEROS DEL MARQUÉS DE RISCAL  
 IDOM, S.A.  
 IMCOINSA 1985, S.A.  
 INDAR ELECTRIC.S.L.  
 MICHELIN  
 MONDRAGON LINGUA  
 REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, S.A.D  
 \* 2018ko abeduaeren datuak





## Presidentearen agurra



Aspaldian egin ohi dugun moduan, AGURRA baliatu nahi dut azkeneko ekitaldiaren balantzea egiteko. Ekitaldiko xehetasunak MEMORIA honetan zehaztu dira, zeinak biltzen baititu Orfeoiaren eta Harrobiko Abesbatzen jardura artistikoa, alde batetik, eta Ikastetxetako Abesbatzek, Musika-Tailerrak eta Soka Ikasgelek paraleloki egindako ekintzak, bestetik.

2018. urtea arrakastatsua izan zela esan dezakegu, bai burututako jardueren erritmo frenetikoagatik –guztira 38 kontzertu eman genituen, eta horiei Harrobiko Abesbatzen beste 21 gehitu behar zaizkie–, bai atzerrian izandako presentziagatik. Izan ere, kontzertuetako zortzi kanpoko bost herrialdetan eman genituen, eta INNSBRUCK hirian lehenengo aldiz izan ginen –121 urteko historian bisitatutako

hogei herrialderen eta 95 hiriren zerrendara gehitu behar da, beraz.

Abesbatzaren erantzuteko ahalmenaren adibide garbia izan zen hamabost egunen buruan Verdiren *Requiem*a zortzi aldiz interpretatu izana Toulousen, Donostian, Gasteizen, Iruñean, Bilbon eta Zaragozan.

Ahalegin handia izan da, eta aipatutakoa aurrera eramatea lortu duten guztien lana azpimarratu nahi genuke, baita Erakundeei, Bazkideei, Lagunei eta Ohorezko Lagunei emandako laguntzagatik eta publikoari (kontzertuetara etorritako 60.000 pertsona) azaldutako goxotasunagatik gure esker ona erakutsi ere.

José María Echarri

## 2018. urtea zenbakietan

<b>Donostiako Orfeoia kontzertuak eta grabaketak</b>	39
<b>Kontzertu, bidaiak, kanpoko entseguak, mezak eta hainbat eratako ekitaldiak egunak</b>	84
<b>Entseguak Donostiako Orfeoiaren egoitzan</b>	109
<b>Lanegunak guztira</b>	193
<b>Donostiako Orfeoiko Abeslari Txikiak, Donostiako Orfeoi Txikia eta Donostiako Orfeoi Gaztearen kontzertuak</b>	21
<b>Donostiako Orfeoi Txikia eta Donostiako Orfeoi Gaztearen grabaketak</b>	2
<b>Irakaskuntza jarduen orduak</b>	2.500
<b>Orfeoilariak</b>	221
<b>Donostiako Orfeoiko Abeslari Txikiak</b>	36
<b>Donostiako Orfeoi Txikia</b>	74
<b>Donostiako Orfeoi Gaztea</b>	53
<b>Antxon Ayestarán Musika-Tailerra</b>	154
<b>Donostiako Orfeoiaren Eskola Koruak</b>	118
<b>Biolin eta biolontxelo ikasgelak *</b>	16
<b>GUZTIRA</b>	<b>672</b>

2018ko abenduaren 31n

## Memoria artistikoa

2018an, Orfeoia Europako sei agertokitan egon zen, **Rotterdam, Bruselan, Toulousen, Carcasonan, Innsbrucken eta München**, eta milaka pertsonak entzun zituzten zortzi kontzertu eskaini zituen. **Euskadin** egindako emanaldiei dagokienez, hainbat udalerritan jardun zen, hala nola **Donostian** –Musika Hamabostaldian bi aldiz parte hartu zuen–, **Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Lazkaon, Ordizian, Bidanian, Oñatin** eta **Tolosan**. Horrez gain, Estatuko zenbait ziklo eta kontzertutan ere hartu zuen parte, hala nola **Zaragozako Auditoriumeko Udaberriko Kontzertu Handien** zikloan eta **Espainiako Auditorium Nazionalean** egin ziren lau kontzertutan.

### Urtarrila

---

Hilaren 10ean eta 11n, abesbatzak eta **Santa Cecilia Orkestra Klasikoak** bi kontzertu eskaini zituzten Mutua Madrileña fundazioarentzat Madrilgo **Auditorium Nazionalean**-Programan askotariko obrak zeuden: zarzuelak, euskal musika eta nazioarteko pop abestiak lehen zatian, eta **Carmina Burana** obraren eta zenbait operaren (**Carmen, Madame Butterfly, La Traviata, Nabucco, Tannhäuser** eta **Fausto**) pasarteak bigarrenean. Bildutako dirua lau GKeri eman zitzaien.



**Hilaren 27an Orfeoia**k, **Pedro José Rodríguez** piano-jotzaileak lagunduta, euskal konposatzaileen obra hautatu batzuk interpretatu zituen **Lazkaoko Azeria auditoriumean**. Orfeoia k Gipuzkoako herri horretan kontzertu bat ematen zuen lehen aldia izan zen.



## Otsaila

---

Bi kontzertu lokal eskaini zituen Orfeoia urteko bigarren hilean: Lehenengoa hilaren 9an izan zen, **Viktoria Eugenia antzokian**, **Udalaren Txistulari Bandarekin batera**. Donostiako kantu herrikoia edo donostiar musikariek konposatutakoak interpretatu ziren. **Donostiako Kantak** izenburupean, Donostia Musikaren IV. Zikloaren barruan antolatu zen emanaldia, eta jai-girokoa izan zen, inauterietan egin zelako. Sara Ceballos dantzariak eta Bebés de la Bulla konpartsak ere parte hartu zuten.





Hilaren 23an, abesbatzak eta **Musikeneko Orkestra Sinfonikoak, Rumon Gamba** britainiar maisuak zuzenduta, **Mozarten *Requiema*** eskaini zuten **Kursaal auditoriumean** Gazteen Kontzertu Solidarioaren hamargarren edizioa izan zen. Aieteko Ikastetxe Nagusiak antolatzen du, eta bildutako dirua Caritasi eman zitzaion. Solista moduan aritu ziren Jone Martínez sopranoa, Marifé Nogales mezzosopranoa, Gonzalo Manglano tenorra eta Celestino Varela baritonoa.

## Martxoa

---

Martxoaren 1ean, Plácido Domingoren ama omendu zuen Donostiak **kontzertu-omenaldi** baten bidez. **Pepita Embil** sopranoa Getarian jaio zen, duela ehun urte, eta

gaztea zenean orfeoilari izan zen. **Plácido Domingo Verum Orkestra Sinfonikoaren** eta Orfeoiaren buruan jarri zen, **Viktoria Eugenia antzokian, Verdiren *Requiema*** zuzentzeko. Hauek izan ziren bakarlariak: Ana María Martínez sopranoa, Nancy Fabiola Herrera mezzosopranoa, Arturo Chacón tenorra eta Nicholas Brownlee baritonoa.



**Rotterdameko Filarmonikoaren** mendeurrena ospatzeko, Rotterdamen eta Bruselan izan zen Orfeoia.

Hiru kontzertu eman zituzten elkarrekin, zehazki, martxoaren 23an, 24an eta 25ean. Programa berdina izan zen hiru kontzertuetan: **Mahleren *8. sinfonia*** interpretatu zuten, **Yannick Nézet-Séguin** Rotterdamgo Orkestra Filarmonikoko zuzendari titularraren gidaritzapean. Herbehereetako Groot Omroepkoor eta Rotterdam Symphony Chorus

abesbatzek eta Nationaal Kinderkoor haurren abesbatzak ere parte hartu zuten kontzertuotan, izan ere, «Mila musikarien sinfonia» ere esaten zaio Mahlerren 8. sinfoniari, berau interpretatzeko instrumentista eta abeslari ugari behar baitira.

Bakarlariak honako hauek izan ziren: Angela Meade (sopranoa), Erin Wall (sopranoa), Erin Morley (sopranoa), Sarah Connolly (mezzosopranoa), Mihoko Fujimura (mezzosopranoa), Michael Schade (tenorra), Markus Werba (baritonoa) eta Christof Fischesser (baxua).

Rotterdamgo **De Doelen** zentroan egin ziren martxoaren 23ko eta 25eko kontzertuak. Hor 2.200 lagunentzako tokia dago, eta sarrera guztiak salduta zeuden urte hasieratik.

Hilaren 23ko kontzertua zuzenean eman zuten Medici.tv katean, eta hilaren 25ekoa, berriz, Avrotros irratian grabatu eta ondoren eman zuten.



Martxoaren 24ko kontzertua askotariko musika eskaintzen duen Klara festibalaren barruan egin zen, **Bruselako Arte Ederren jauregian (Bozar)**, Henry le Boeuf aretoan, non 2.100 lagunentzako tokia dagoen. Agertokiaren tamaina dela eta, abesbatza guztietako abeslari kopurua murriztu behar izan zen, eta batzuek alboetako bi palkoetan egon behar izan duten. Kontzertu hori Radio Klara irrati-kateak eman zuen zuzenean.





## Apirila

---

Hilaren 13an **Orfeoia-UPV/EHU Sariaren XVII. edizioa** emateko ekitaldia izan zen. Urtero bezala, kontzertu txiki bat eskaini zen amaieran, UPV/EHUko Ignacio María Barriola zentzoren atarian. **Argibel Euba** ikertzailea eta **Guadalupe Díaz** irakaslea izan dira aurtengo sarituak. Bach, Schubert, Brahms, Mozart, Mendelssohn, Busto eta Cohen musikarien obren pasarteen sorta bat, Javier González



Sarmiento piano-jotzailearen akonpainamenduarekin. Eta amaitzeko, bertaratutako guztiek *Gaudeamus Igitur* unibertsitate-ereserkia abestu zuten.

Hilaren 27an, Orfeoiak, Santa Cecilia Orkestra Klasikoa lagun, korurako egokitutako melodia ezagunak interpretatu zituen, Atlantikoaren bi ertzetan arrakasta bildutakoak: tangoak, boleroak, habanerak, mariatxiak eta bestelako erritmo herrikoiak. Kontzertua Excelentia fundazioak antolatu zuen, eta Sainz Alfaro izan zen zuzendaria.



## Maiatza

---

Orfeoia eta Musikene Orkestra **Víctor Pablo Pérez** maisuaren aginduetara jarri ziren **Cherubiniren *Requiem*** obra interpretatzeko. Bi kontzertu izan ziren: maiatzaren 12an, Donostian, **Musikene** Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiko auditoriumean, eta, hurrengo egunean, **Bilboko Arriaga antzokian**. Bi ekitaldiak **Béla Bartóken *Biolarentzako eta Orkestrarentzako Kontzertu***arekin ireki ziren, Musikenen hezitako **Yana Kutxerova** gazte errusiarra protagonista izen zelarik. Lehen kontzertuan bildutako dirua Gipuzkoako Minbiziaren kontrako Elkarteari eman zitzaion.

Bi kontzertu horiek eta daria bi erakundeek –Musikene eta Donostiako Orfeoia– 2014an izenpetutako hitzarmenaren emaitza dira.



Halaber, hitzarmen horretan adostu zen Musikeneko ikasleen artean Euskadin ikerkuntza musikala sustatzea eta bultzatzea helburu duen urteko saria ematea. Hain zuzen, bigarren edizioko sari hori lehen kontzertuaren atsedenaldirian eman zen. Saritua Inga Freyrsdóttir Lorenzo izan zen, eta hau da saritutako lanaren izenburua: «Felix Ibarrendoren *Urruntz* obraren azterlana: Flauta-orkestrarako gaur egungo erreperitorio baten adibidea».



Maiatzaren 26an, Orfeoia **Tafallara** (Nafarroa) joan zen, eta hango Kultura Zentroan euskal konposizioak, latinoamerikarrak eta nazioarteko pop kantuek eskaini zituen askotariko programa baten barruan, Pedro José Rodríguez piano-jotzailearen laguntzaz eta **Sainz Alfarok** gidatuta. Kontzertu horrekin ospatu zen **Nafarroako Abesbatzen Federazioaren 30. urteurrena**.



## Ekaina

Ekainaren 4an egindako **batzar nagusian, José María Echarri** berriz aukeratu zuten erakundeko presidente posturako. Batzordekide abeslari eta ez-abeslari batzuk ere berritu ziren, bai eta orfeoilari ohien ordezkari ere.



Orfeoia eta **Andrés Segovia Ganbera Orkestrak, Sainz Alfaroren** zuzendaritzapean, **Mozarten Koroatze-meza** eta **Requiema** eskaini zituzten ekainaren 2an, Madrilgo **Auditorium Nazionalean**, A+música zikloaren barruan. Paloma Friedhoff sopranoa, Pilar Belaval kontraltoa, Manuel Rodríguez tenorra eta Pablo Ruiz baritonoa aritu ziren bakarlari.



Ekainaren 8an eta 9an, bi kontzertu eman ziren **Toulouseko Halle aux Grains** aretoan, Frantziako hiri horretako **Kapitolioko Orkestra Nazionalaren** denboraldian. **Tugan Sokhiev** zuzendari titularrarekin, **Verdiren Requiema** interpretatu zen, Erika Grimaldi



(sopranoa), Anna Kiknadze (mezzosopranoa), Saimir Pirgu (tenorea) eta Vitalij Kowaljow (baxua) solistekin. Kontzertu horietako lehena Radio Classique irratian eman zuten zuzenean, eta bigarrena, Medici.tv katean zuzenean, eta Radio Classique irratian, ondoren.



Obra hori bera interpretatu zen **Robert Treviño** Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren titularrak zuzenduta, Donostiako **Kursaalen** (ekainak 14 eta 15), **Gasteizko Principal antzokian** (ekainak 18), Iruñeko **Baluarte** auditoriumean (ekainak 19) eta Bilboko **Euskaldunan** (ekainak 20). Kontzertu horiekin amaitu zuen **Euskadiko Orkestra Sinfonikoak** abonamendu-denboraldia. Kontzertu horietan hauek izan ziren solistak: Amanda Pabyan sopranoa, Susanne Resmark mezzosopranoa, Aquiles Machado tenorea eta Rafal Siwek baxua.



**Zaragozako Auditoriumeko Udaberriko Kontzertu Handien XXIV, Denboraldia** ixteko, hilaren 23an **Verdiren *Requiema*** interpretatu zen, **Aragoiko Erresumako Orkestrarekin, Sainz Alfarok** zuzenduta eta Carmen Solís (sopranoa), Ana Ibarra (mezzosopranoa), Sergio Escobar (tenorra) y David Menéndez (baritonoa) solistekin

## **Uztaila**

---

Orfeoia **Carcasonan** ekin zien udako jaialdiei. Hain zuzen ere hilaren 5ean, Jean-Deschamps antzokian interpretatu zuen **Carl Orffen *Carmina Burana***, **Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionalarekin** eta **Michele Gambaren** zuzendaritzapean. Agertokian 83 musikari bildu ziren: 80 orfeoilari eta Pauline Texier (sopranoa), Enea Scala (tenorra), Adrian Eröd (baritonoa) solistak. Euria egin zuen arren, kontzertuaz ederki gozatu zuten Erdi Aroko hiriaren barruan kokatuta dagoen aire zabaleko antzokira hurbildu ziren hiru mila pertsonak.



Hilaren 28an, **Irungo Hiriko Musika Bandarekin** batera, kontzertu bat eman zen **Ordiziako** plaza nagusian. Askotariko obrak bildu ziren Gipuzkoako herri horren sorreraren 750. urteurrena ospatzeko programan, eta **Sainz Alfaro** eta **Garikoitz González** aritu ziren zuzendari.



## Abuztua

---

Hilaren 14an 1932 eta 1968 artean Orfeoiko zuzendari izandako **Juan Gorostidiren heriotzaren 50. urteurrena** izan zen, eta abesbatzak lore-eskaintza bat egin zion bere izena daraman plazan. Hilaren 28an, gainera, figura horri buruzko mahai-inguru bat antolatu zen.



Ekitaldi soil eta labur batean, Intxaurrendoko Juan Gorostidi plazan bildu ziren orfeoilari talde bat, abeslari ohi batzuk eta zuzendaritza-batzordeko kide batzuk, maisuari omenaldia egiteko. Haren biloba Magdalena del Campok lore-




sorta bat jaso zuen Sainz Alfaroren eskuetatik, eta abeslari taldeak *Agur Jaunak* abestu zuen. Segidan, bertaratutakoak Polloe hilerrira joan ziren, loreak Gorostidi familiaren panteoian ipintzeko, bertan baitago lurperatuta maisua. Arratsalde horretan bertan, Orfeoiak Reficeren *Salvea* interpretatu zuen haren omenez Santa Maria elizan.

Hilaren 28ko mahai-ingurua Orfeoiaren egoitzan egin zen. **Jon Bagüése**k, haren iloba **José Luis Gorostidik** (Txolis), kontserbatorioan haren ikasle izandako **Txaro Ormazabal** orfeoilariak, **Iñaki Erauskin** ere haren ikaslea izan zen eta azkenik, **Arturo Reverterek** parte hartu zuten.

Abuztuaren 17an, Orfeoia amaiara eman zion **Music in the Alps** nazioarteko jaialdiari, Austriako **Innsbruck** hirian. Bertan, **Carmina Burana** interpretatu zuen, jaialdiko orkestrarekin eta **Kenneth Kiesler** zuzendariarekin. Jaialdi berri horretan ikuskizunez gain irakaskuntza ere ematen denez, Sainz Alfarok master class bat eman zuen izena eman zuten kantu-ikasleentzat.



Abuztuaren 27an, **Donostiako 79. Musika Hamabostaldian**, orfeoilariek **Mozarten *Vesperae solennes de confessore*** eskaini zuten, **Budapesteko Orkestra Sinfonikoarekin** batera, **Ivan Fischerek** zuzenduta eta Christina Landshamer sopranoarekin, Olivia Vermeulen mezzosopranoarekin, Konstantin Wolff baritonoarekin eta Orfeoiko kide izandako Xabier Anduaga tenor donostiarrarekin. Zuzendari hungariarrak zuzendua zuen abesbatza lehendik ere, 2016an, eta oraingoan beste bertsio bat eskaini zuen, antifona gregoriano batzuk txertatu zituelako, Orfeoiko ahots grabeen talde





batek interpretatuta. Kontzertuaren bigarren zatian, orkestrak Mahlerren *4. sinfonia* interpretatu zuen.

## Iraila

---

Hamabostaldiaren itxiera-ekitaldian ere parte hartu zuen Orfeoiak, irailaren 1ean. **Berliozen *Requiema*** interpretatu zuten **Koloniako Irratiko Orkestra Sinfonikoarekin** batera, **Jukka-Pekka Saraste** maisuarekin eta Maximilian Schmitt tenor solistarekin.

Donostiako jaialdiaren itxiera-kontzertu honetan 143 orfeoilariak kantatu zituzten, kantarien kopuru nabarmena, abesbatzak askotan interpretatu duen obra batean.



Hilaren 16an, abesbatzak Ángel Alonsok zuzendutako «**Elcano, la primera vuelta al mundo**» animazio-filmaren **soinu-bandaren** zatirik epikoena grabatu zuen EOSen egoitzan. Joseba Beristainek konposatu du musika, eta filmaren 85 minutuetako 60 hartzen ditu. EOS arduratu zen alderdi sinfonikoez, eta lantaldea osatu zuten Enrike Solinísek eta bere talde Euskal Barrokensemble (antzinako musika jotzen dute) eta La Oreja de Van Gogh taldeak.





Irailaren 29an, elizako piezak interpretatu ziren **Gerardo Rifón** organo-jotzailearekin batera, **Bidania-Goitzeko** San Bartolome elizaren zaharberritzearen hamabosgarren urteurrena ospatzeko ongintzazko kontzertuan.



## Urria

---

**Municheko Filarmonikak** bere 125. urteurrena ospatzeko kontzertuan parte hartzera gonbidatu zuen Orfeoia, urriaren 13an. **Mahleren Zortzigarrena** interpretatu zuten. Orkestra horrek berak estreinatu zuen sinfonia hori 1910ean, Mahlerrek berak zuzenduta.



Municheko **Philharmonie im Gasteig** auditoriuma guztiz bete zen, bertaratuek ez zuten eta galdu nahi izan Festival MPhil 360<sup>o</sup> jaialdiak Bavariako hiribururako antolatutako gertakari historikoa. **Valery Gergiev** orkestrako zuzendaria izan da 2015etik, eta bera arduratu zen kontzertua zuzentzeaz. Zati koralak Orfeoia, orkestrako abesbatzak eta Augsburgeko haurren abesbatzak interpretatu zituzten. Honako hauek izango ziren solistak: Simone Schneider (sopranoa), Viktoria Yastreroba (sopranoa), Jacquelyn Wagner (sopranoa), Regula Mühlemann (sopranoa), Wiebke Lehmkuhl (altua), Gerhild Romberger (altua), Stephen Gould (tenorra), Boaz Daniel (baritonoa) eta Yevgeny Nikitin (baxua).

Lehen zatian, Filarmonikako orkestrak eta abesbatzak Igor Stravinskiren *Salmoen sinfonia* interpretatu zuten. Bigarren zatian, eszenatokian 500 pertsona inguru zeudela, Gergievek «Mila musikarien sinfonia» ezizenez ezagutzen den obraren bertsio pertsonal bat aurkeztu zuen. Mahlerri, edonola ere, ez zitzaion goitzen hori atsegin.

Ospakizun eta jai-giroko kontzertu honetara etorri ziren 2.400 pertsonak ederki gozatu zuten musikarien, abesbatzen eta solisten baterako lanarekin, eta luzez jo zuten txalo. Kontzertua zuzenean eman zuen Alemaniako irrati publikoko BR-Klassik kateak.

Hilaren 17an, **Bilboko Euskalduna** jauregian kontzertu pribatu bat eskaini zitzairen 2018ko **Europako Pulbimetalurgia Kongresuko** parte-hartzaileei. Sainz Alfarok zuzenduta eta Pedro José Rodríguez piano-jotzailearen parte-hartzearekin, musika erlijiosoa, euskal musika eta nazioartekoa uztartzen zituen programak.





Operako koruak **Opus Liricari** babesa emateko, hilaren 19an, Kursaalaren egindako kontzertu solidario batean, **Sainz Alfaro**k zuzenduta eta **Opus Lirica Orkestrarekin**. **Coro Adao-Doze Abesbatzako** kide batzuek ere parte hartu zuten.



Hilaren 26an **Donostiako Orfeoia**k eta **Burgosekoak** kontzertu bat eskaini zuten **Burgoseko katedralean**, eraikin horren **8. mendeurrena** eta **Burgoseko Orfeoia**ren **125. urteurrena** ospatzeko –programatutako jardueretako bat izango da–. Mende batetik gorako ibilbidea duten bi abesbatzek **Fauré**ren *Requiem*a interpretatu zuten elkarrekin, **Sainz Alfaro**k zuzenduta. Kontzertuaren lehen zatian, Donostiako Orfeoia hainbat konpositoreren obrak kantatu zituen, **Gerardo Rifón** organo-jotzaileak lagunduta.



## Azaroa

---

Hilaren 8an, Madrilgo Auditorium Nazionalean izan zen Orfeoia **Santa Cecilia Orkestra Klasikoarekin** eta **Sainz Alfaro** zuzendariarekin, eta «América canta» izeneko kontzertua eskaini zuen, **Excelentia Fundazioak** antolatutako kontzertuen zikloan. Atlantikoaren bi aldetan ezagunak diren abestiz osatuta egon zen programa: tangoak, boleroak, mariatxiak, mamboak eta filmetako soinu-banden zati batzuk.



Azaroaren 10ean, **Cabanillasko kultura-aretoan** (Nafarroa) izan zen Orfeoia. Askotariko programa bat eskaini zen, **Pedro José Rodríguez** piano-jotzaileak lagunduta, **Sainz Alfaro**ren zuzendaritzapean.





Halaber, **Eusko Ikaskuntzak** erakundearen **mendeurrena** ospatzeko antolatu dituen ekitaldietako batean parte hartu zuen Orfeoiak. Hilaren 24an izan zen ekitaldia, **Oñatiko San Migel parrokian**. **Secundino Esnaolaren *Eusko Hizkuntza*, Gontzal Mendibilen *Bagera*** –kantautoreak berak ahotsaz eta gitarraz lagunduta–, eta **Agur Jaunak** interpretatu zituzten. **Esteban Urzelai** arduratu zen kontzertua zuzentzeaz.



Ehun urtez «ikertzen eta hiriari lotuta» egoteagatik Donostiako Udalak **Eusko Ikaskuntzari** eman zion **Hiriaren Urrezko Domina** entregatzeko ekitaldian ere parte hartu zuen Orfeoiak. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zen ekitaldia. Udalbatzako kideek parte hartu zuten, Eneko Goia alkatea buru zutela. Orfeoiak **Esnaolaren *Eusko Hizkuntza*** eta **Olaizolaren *Agur Jaunak*** abestu zituen *a cappella*, palkoetatik.



**Onda Cero Gipuzkoak** Orfeoiari eman zion **Kulturaren Saria**, bere lan didaktikoagatik eta ibilbideagatik. Irrati-etxeak urtero ematen dituen sari horiek entregatzeko ekitaldia azaroaren 22an izan zen Londres eta Ingalterra Hotelean.

Hasteko, Orfeoi Txikiak emanaldi txiki bat eskaini zuen, eta amaieran, Eneko Goia alkatearen hitzartzearen ondoren, jarraipena eman zitzaion horri.

Berriz ere **Santa Cecilia Orkestra Klasikoarekin** batera eta **Sainz Alfaro**k zuzenduta, hilaren 25ean **Mozarten** *Requiema* eta **Fauré**rena interpretatu ziren **Kursaaleko** auditoriumean **Excelentia Fundazioak** antolatu zuen kontzertua.



**Santa Zeziliaren ospakizuna** azaroaren 30eko gauean izan zen. Tradizioari jarraikiz, meza bat egin zen hildako gertukoaren omenez San Bizente elizan, eta gero afari bat Londres hotelean. Bertan, diplomak eta sariak banatu ziren eta zozketak egin ziren.



Ana Franco, José Javier Zabala eta Amaya Echeverría orfeolariei ohorezko bazkideen diploma bana entregatu zitzaien, abesbatzan 15 urte bete dituzte eta. Urtean zehar entseguetara eta kontzertuetara kale egin gabe joan direnentzako sariak egon ziren, eta opariak zozkatu ziren afarira etorri zirenen artean.

## Abendua

---

Urtea ixteko, Orfeoia hiru kontzertu eman zituen Gipuzkoan, Sainz Alfarok zuzenduta.

Lehena **bazkide eta adiskidentzat** izan zen, **Kursaalen** izan zen, abenduaren 13an, **EOSe**kin, eta, halaber, **haurren eta gazteen abesbatzek** ere parte hartu zuten. Guztira 270 kantari elkartu ziren eszenatokian.

Bazkideei eta adiskideei ongietorria eman zien Orfeoi Txikiak, eta, Pedro José Rodríguez piano-jotzaileak lagunduta, auditorioko hallean obra bat interpretatu zuen.

Edizio honetan, kantu herrikoi labur eta askotarikoak sartu ziren programan, hala nola euskal abestiak, abesti latinoamerikarrak eta film ezagunetakoak, eta, amaitzeko, zenbait gabon-kanta eskaini ziren. Era berean, elementu berritzaile bat ere gehitu zen, David Govillard eta Elena Alzurik osatutako tango bikote baten Gardelen "Por una cabeza" obran parte hartuz.

Zerogarren ilara bat izan zuen, Atzegi elkartearen alde eta entsegu nagusia bezperan egin zen, eta jendeari sartzen utzi zitzaion, BM Supermerkatuak (Orfeoiaren Ohorezko Adiskidea) den enpresaren eskutik.





Era berean, omenaldia egin zitzaien hamarkada bat baino gehiago abesbatzaren lagun izaten daramaten 11 enpresari: Arcelormittal Gipuzkoa, Bankoa, Bultz, Kursaal Elkargunea, Nafarroako Unibertsitatearen Goi Ingeniaritza Eskola, Estrategia Empresarial, Etxe Onenak, Imcoinsa 1985, Caixabank, SDV Elkartea eta Unicef Euskal Herriko Batzordea.





Hilaren 22an,  
abesbatzak  
**Haendelen *Mesias***  
interpretatu zuen  
**Santa Cecilia**  
**Orkestra**  
**Klasikoarekin**  
batera eta Maria  
Hinojosa  
(sopranoa), Marta  
Infante  
(mezzosopranoa),  
V́ctor Sordo  
(tenorra) eta Pau  
Bordás (baritonoa)  
solistekin.



Urteko azken kontzertua abenduaren 29an izan zen, **Tolosako Santa Maria elizan, Abesbatza Lehiaketaren 50. urteurrena** ospatzeko. Askotariko programa eskaini zuen Orfeoia Sainz Alfarok zuzenduta eta Gerardo Rifón organo-jotzailearen akonpainamenduarekin.



# Donostiako Orfeoiaren harrobiko abesbatzak

## Donostiako Abeslari Txiki eta Orfeoi Txikia

### ABESLARI TXIKIAK

Orfeoiko abesbatzen lehen talde honetan, abeslariak pixkanaka kantuaren oinarriak barneratzen dituzte. Aurten 36 abeslari egon dira, gehientsuenak Eskola Koruetatik eta Tailerrertik etorriak. Nabarmenezkoa da, egin dituzten ekitaldien artean, Miranda de Ebron eman zuten kontzertua, Brittenen “Friday Afternoons” obra esanguratsua abestuz.

**Urtarrilak 20.** Donostia eguneko meza.

**Martxoak 3.** Miranda de Ebron kontzertua, Brittenen “Friday Afternoons” abestuz.

**Maiatzak 13.** Eskola koruen kontzertuan parte hartzea, Victoria Eugenia.

**Ekainak 12.** Ikasturte amaierako kontzertua Santa Maria basilikan.

**Abuztuak 14 eta 15.** Salbea eta Amabirjinaren eguneko meza.

**Abenduak 12 eta 13.** Donostiako Orfeoiaren bazkideen kontzertua, Kursaalean.

**Abenduak 28.** UNICEF - DONOSTIAKO ORFEOIA 20. kontzertua Kursaalean.



## **ORFEOI TXIKIA**

Taldeak urteroko martxari jarraitu dio, 74 abeslarirekin. Aipagarria da Orfeoi Txikiak bi diska grabatu dituela aurtengoan: bata Juantxo Zeberioen abesti eta moldaketekin, eta bestea, Euskal Barrokenseblerekin, Elkanoren mundu biraren inguruan. 2017ko elkartrukearen bidetik, 2018an ere Bartzelonan izan ginen, Palau de la Musican “El concert desconcertant” kantata abestuz, Cor Infantil del Orfeo Catalá abesbatzarekin batera. Irailean, Montse Latorreren ordez, Klara Mendizabal hasi zen gurekin lanean.

**Urtarrilak 20.** Donostia eguneko meza.

**Urtarrilak 27-28.** Hondarribiako aterpetxean asteburu-pasa.

**Martxoak 1-4.** Bartzelonara bidaia, Palau de la Musican kontzertu bat eskaintzeko.

**Maiatzak 17.** Euskal Barrokenseblerekin kontzertua, Arriagan.

**Ekainak 3.** Euskal Barrokenseblerekin kontzertua, Kursaalean.

**Ekainak 9-10.** Juantxo Zeberioen abestien diskaren grabaketa.

**Ekainak 12.** Ikasturte amaierako kontzertua, Santa Maria basilikan.

**Ekainak 14.** Euskal Barrokenseblerekin diska grabaketa.

**Abuztuak 14 eta 15.** Salbea eta Amabirjinaren eguneko meza.

**Azaroak 22.** Onda Cero-ren sari banaketan emanaldia, Londres hotelean.

**Azaroak 29.** Juantxo Zeberioen abestien grabaketa.

**Abenduak 1.** Donostiako gabonetako argiteriaren piztuera ekitaldian emanaldia.

**Abenduak 12 eta 13.** Donostiako Orfeoiaren bazkideen kontzertua, Kursaalean.

**Abenduak 15.** Balenciaga museoan emanaldia.

**Abenduak 28.** UNICEF - DONOSTIAKO ORFEOIA 20. kontzertua Kursaalean.





# Donostiako Orfeoi Gaztea

Elkartrukez beteriko urtea izan du Orfeoi Gazteak 2018a, Oviedoko Princesa de Asturias Fundazioko eta Parisko Orkestrako gazte-koruekin, hain zuzen. Pariskoekin elkarbizitza sustatzeko aukera izan zen, bai Parisen eta bai Donostian, abeslariak familien etxeetan egon baitziren. Orfeoi Gazteak ere parte hartzea izan ditu Juantxo Zeberioaren eta Euskal Barrokensemleren disketan. Aurten 53 abeslari izan ditugu.

**Urtarrilak 20.** Donostia eguneko meza.

**Otsailak 24.** Oviedoko abesbatzari harrera eta Udaletxean kontzertua.

**Apirilak 7-9.** Parisera bidaia, Parisko Orkestrako Gazte Koruarekin elkartrukea.

**Apirilak 23-25.** Parisko abesbatzari harrera eta Udaletxean kontzertua.

**Maiatzak 17.** Euskal Barrokensemlerekin kontzertua, Arriagan.

**Ekainak 3.** Euskal Barrokensemlerekin kontzertua, Kursaalean.

**Ekainak 9.** Juantxo Zeberioaren abestien grabaketa.

**Ekainak 12.** Ikasturte amaierako kontzertua, Santa Marian.

**Ekainak 15.** Euskal Barrokensemlerekin grabaketa.

**Abuztuak 14 eta 15.** Salbea eta Amabirjinaren eguneko meza.

**Urriak 5.** Euskaltzaindiaren 100. Urteurreneko kontzertua, Arantzazun.

**Azaroak 30.** Aieteko kultur etxean kontzertua.

**Abenduak 12 eta 13.** Donostiako Orfeoiaren bazkideen kontzertua, Kursaalean.

**Abenduak 28.** UNICEF - DONOSTIAKO ORFEOIA 20. kontzertua Kursaalean.



## Donostiako Orfeoiko Abeslari Txikien errolda

Neskak	(8-11 urte)	<b>GUZTIRA</b>	21
Mutilak	(8-11 urte)		15
<b>GUZTIRA</b>			<b>36</b>

**Zuzendaria:** Leticia Vergara

## Donostiako Orfeoi Txikiaren errolda

1. ahotsa	(11-14 urte)	<b>GUZTIRA</b>	29
2. ahotsa	(11-14 urte)		25
3. ahotsa	(11-14 urte)		20
<b>GUZTIRA</b>			<b>74</b>

**Zuzendariak:** Klara Mendizabal eta Esteban Urzelai

## Donostiako Orfeoi Gaztearen errolda

Sopranoak	(14-18 urte)	<b>GUZTIRA</b>	20
Kontraltoak	(14-18 urte)		14
Tenorrak	(14-18 urte)		11
Baxuak	(14-18 urte)		8
<b>GUZTIRA</b>			<b>53</b>

**Zuzendariak:** Esteban Urzelai eta Leticia Vergara

*2018ko abenduaren datuak.*

## Eskola koruak

Aurten ere Eskola Koruek ekintza ugari egin dituzte ikasturtean zehar, eta 2017/2018 ikasturteari Victoria Eugenia eskainitako kontzertu jendetsu batekin eman zioten amaiera. Bertan, TAUPADAKen aldeko dirua bildu zen. Proiektu honen 12. urteari 3 ikastetxerekin ekin zitzaion, 100 abeslari inguru bilduz: **Peñaflorida Institutua, Jakintza Ikastola eta Ibai Ikastola**. Era berean, aipatu beharra dago **San Ignacio, Intxaurren Hegoa** eta **Zuhaizti** ikastetxeekin sortu den elkarlana, eskola hoietako abesbatzak eta Donostiako Orfeoaren artean lotura sendotuz. Azpimarratu beharra dago koru hauek direla Donostiako Orfeoiko harrobiaren abeslari iturri nagusia.



# Antxon Ayestarán Musika-tailerra

“Batuetan, gauza txikien ondorio izugarriak aztertzen ditudanean, gauza txikirik ez dagoela pentsatzera jotzen dut”. Bruce Barton.

Antxón Ayestarán Musika-Tailerreko taldeak gure artista txikien talentua garatzeko jarduera txiki eta zehatzak antolatzen jarraitzen du.

Entzumenaren bitartez mundua aztertuz eta soinekin **joLAsean** soinudun istorioak sortzen dituzte. Mutiko eta neskatoak MUSIKAREN erdigunean nahi ditugu.

Bach, Mozart, Beethoven, Txaikovski, Stravinsky, Guridi edo Escuderoren konposizioek ikasgeletako soinu banda osatzen dute, ikasleek Baschet edo Orff instrumentuekin, besteak beste, sortutako musika-piezekin batera.

Familiek ikasgeletan antolatutako jardueretara joetako eta horietan parte hartzeko aukera izan dute 2018. urtean. Oso esperientzia atsegina izan da bai gurasoentzat bai ikasleentzat.



Ikasturte honetatik, Santa Maria basilikako organoari egindako bisita nabarmendu nahi genuke, non Loreto Aramendiren eskuzabaltasunari esker ikasleek instrumentu handi hori probatu eta haren sekretuak ezagutu ahal izan zituzten.

Loretok ikasleek ikasgelan landutako Bachen *Tocata eta fuga re minorrean* piezaren zati bat jo zigun, opari ederra. Polita izan zen ikasleak esperientziarekin gozatzen ikustea.

Ikasturtea amaitzeko, familiei eta lagunei sei eta zazpi urteko mutiko eta neskatoek soinua jarritako *Sirenatxoaren ipuina* eskaini genien egoitzako antzokian. Orfeoiko abeslari txikiek kantu politak eskaini zizkiguten Leticia Vergararen zuzendaritzapean, eskerrik asko!

Eta urtea amaitzeko, ikasleek horrenbesteko ilusioarekin prestatzen duten Gabonetako kontzertua.

Orixen eta Summa Aldapeta ikastetxeetako musika tailerrek interes handia erakutsi dute burututako jardueretan eta egindako lanaren zati txiki bat aurkeztu duten kurtso amaieran.

2018an 154 haur izan dira egoitzan eta ikastetxeetan.

Musika tailerra luzatu egin da: **“Uda entzuten da...”** . Oraingoan, musikaren koloreak (gorria, horia, urdina eta berdea) entzun dira oporraldiaren hasierako lau asteetan. Arrakasta handia izan du jarduerak 51 haurren parte-hartzearekin.



*Irakasleak: Mari Tere Balerdi, Amaia Echeverría, Sabina Holzner, Carol López de Landatxe eta Ana Salaberria.*



## Biolin ikasgela

Ikasturtea 11 ikaslerekin hasi zen: hamar erdi-mailako ikasle, teknika eta interpretazio maila hobetzen ari direnak, eta bi maila aurreratukoak.

Ikasturte berri honen bilakaera oso positiboa izaten ari da, eta ikasle guztiak ondo baino hobeto ari dira lanean ikasturtearen erronkei aurre egiteko. Ikasle berriak interes bizi-bizia erakusten ari dira, eta zaharrek hobera egiten jarraitzen dute teknikari eta piezen interpretazioari dagokienez, entzunaldietan eta kamara-taldeetan erakusten ari diren bezala. Jarduera horiek hiru emanalditan banatuta daude.

Beti bezala, ohiko kontzertuak emango ditugu hiru saiotan:

- Gabonetakoa
- Aste Santukoa
- Ikasturte-amaierakoa

Antonio eta biok oso pozik gaude haietako bakoitzaren aurrerapenarekin.

Beti bezala, eskerrak eman nahi genizkieke tailerreko irakasleei egin duten lan bikainagatik, ikasleen trebakuntza bikaina da eta.



*Irakasleak: Catalin eta Antonio Bucataru*

# Biolontxelo Ikasgela

Joan den ikasturtean bost ikasle izan ziren Orfeoia eskaintako Biolontxelo ikasgelan, bi mailatan banatuta –erdi-maila eta maila aurreratua–. Egitura horrek ahalbidetzen du ikasle bakoitzaren erritmora moldatutako ikasketa eskaintzea.

Musika-tresna horren ikaskuntza-prozesurako Lee, Suzuki, Miedlar eta beste konpositore batzuen teorian oinarritutako metodologia mistoa erabili da, azken urteetan baliagarria izan baita ikasleek beren buruari ezarritako helburuak erdiesteko.



Ikastaroan hastean, norberak bere asmoak ditu. Batzuentzat nahikoa da partiturako notak biolontxelora eramatea; beste batzuek laguntza behar izaten dute instrumentua ondo ezagutzeko bide luzean; eta, beste zenbaitek, bultzadatxo bat besterik ez dute behar musika-kontserbatorio batean izena emateko. Hori dela eta, interesgarria da oso ikastaro honek eskaintzen duen malgutasuna, helburu bakoitzari egokitzeko aukera ematen baitu.

Ikasle guztiek lortu dute nahikoa maila ona hirian eta Gipuzkoan entzunaldiak eskaintzen dituzten musika-taldeetako partaide izateko.

Hiruhileko bakoitzaren amaieran (Gabonetan, Aste Santuan eta ikasturte amaieran) ikasleek emanaldi irekiak ematen zituzten Orfeoiaren egoitzan. Bertan, egile ospetsuen obra klasiko eta modernoak interpretatu zituzten, bai eta filmetako soinu-bandetako pasarteak ere, banaka, binaka hirunaka eta pianoaren akonpainamenduarekin. Jarduera horiek ikasleentzako pizgarriak dira, eta horrela interes handia jartzen dute ikasketetan aurrera egiteko.

*Irakaslea: Dorota Komorowska*